

www.noaia.com

Noaia!!!



Igande honetan,
mendi bizikleta martxa

Patxi Segurola, Autunen konfinaturik
“Litekeena da ere otsailaren 15ean estradizio
eskaera bat onartzea eta bertan atxilotzea”

PSU

serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63

660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik **EZ** duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Interneten ere aurkituko gaituzu **NOAUA!** Usurbildarron zerbitzura

 <http://twitter.com/noaua>

 <http://www.facebook.com/noaua>





Albistea iruditan!

Zubietako ikasleak danbor jole, San Sebastian bezperan

Giro euritsua protagonista izan duen San Sebastian eguneko danbor festak, beste behin ere, Gipuzkoako hiriburu-ko mugak gainditu ditu. Urtarrilaren 20a heltzeko ordu batzuk falta zirela, Udarregi Ikastolako nahiz Zubietako Eskola Txikiko ikasleak izan ziren San Sebastianak girotzen hasi ziren lehenak. San Sebastian egunean ez bezala, Udarregi eta Zubietako ikasleen emanaldietan zehar ateri eutsi zion. Barruko orrialdetan Udarregiko emanaldien berri topatuko duzue. Aldameneko irudia, ordea, Zubietan jaso da.



SAN SEBASTIAN BEZPERAN, EURIA EZ ZEN ARAZO IZAN.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UGAITZ AGIRRE

Urruzuno sariari

Azterketa garaian, ematen duenez buruak ez ditu bira askotxo ematen. Pentsatzeko ez da gai askorik, soilik ikasi beharrekoa eta ni ere horrela nabil Espainiako Historia Ekonomikoaren gora eta berberarekin behera. Beraz irakurle sentitzen dut ezin denbora eskaintzea zati honi. Baina berdín du, horrelako momentuetarako prestatua nago eta ohore moduan edo Urruzuno Literatur Sariari eskaini nahiko nioke errebeindikazio gisa, krisia dela eta, oraingoz behintzat, urtebeteko atsedena eman diotelako. Beraz, kulturaren aurka egiten diren atentatu guztiei eskaini nahi diet egunen batean egin nuen olerki hau, eta batez ere Urruzunori, berau irabazi gabe duda egiten dudalako horrelako zerbait egin nezakeenik. Eta zuri irakurle, aste ona pasa ezazu, ni berriz ere ikastera noa eta.

KALEIDOSKOPIOTIK BEGIRA

Dena galdutzat jotzen genuenean
genuen DENA galdu genuen.
Zutik ez zen ezertxo ere geratu, /
denak lurra besarkatu zuen.

Tango bat dantzatzeko eskatu nizun eguzkia itsasoaren
magalean lokartzen ari zelarik lotsati.

Bihar esan zenidan.

Iragana oraina bihurtu den minutu hauetan besoetatik
hartu zaitut,

baina ez tango baten erritmoan.

Burtsak hondoa jo du salbazioari oihu egiteaz nazkatu-
ritota. Orain arrainen bankete bihurtu da.
Gizadia gurutziltzaturik abandonatu dugu.

Kontzeptu abstraktu bat besterik ez zen /
bere balio guztia galduta

eta ondasunak errauts artean kontsumitzen dira
naufragio baten arima olatuek daroten moduan.
Haizeak bortitzago jotzen du zure aurpegian
larrutu nahi bazintu bezala.

Gaizkilea kondenatu behar zuen epaitegiak
gaizkiaren esanahia hiztegietan begiratu gabe
eta gaizkiak berak kondenatu gaitu basamortuko
heriotzera.

Salbatzaileetan ez dugu sinesten.

Horregatik kaleidoskopiotik begiratzen dugu,
zerbait ederra aurkitzeko asmoz,

edo errealitateari uko egiten diogulako
nazkatu baikatu bere lege eta araukin,
bere etika eta moralarekin,

bere nahi eta ezinarekin.

Gasolina burutik behera bota dugu
eta azken zigarro bat piztu.

Sua.

Sua.

Malkorik ez da begietan.

Sua.

Sua.

Hutsa.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 30.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkarrearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Arraina edo haragia gordetzeko, 1.000 ontzi eskuragarri banatuko dira egunotan

Arraina edo haragia paper batean bilduta, plastikozko poltsa batean etxera eraman beharrik ez da izango aurrerantzean. Norberak exetik ontzi bat hartu eta saltokira bertara joanda, saltzaileak arraina aipatu ontzian jasoko dio. Ontziok gainera, doan jaso ahal izango dira datozen bi asteburuotan, “Ontziratu zaitetz!”, Usurbilgo Udalak, Hurbilago elkarteak, Usurbil Zero Zaborrek, zenbait saltokik eta Kutxa Ekoguneak bultzaturiko kanpainaren baitan.

Arraina eta haragia jasotzeko 1.000 ontzi berrerabilgarri banatzeko asmoa dute Usurbilgo Udalak, Hurbilago Elkarteak, saltokiek eta Kutxa Ekoguneak. Mila ontziok herritarrak eskuragarri izango dituzte, urtarrilaren 28an, 31n eta otsailaren 4an. Bertan, egitasmoaren inguruko informazioa eskainiko du gainera, Usurbil Zero Zabor bilguneak. Asteburu honetatik aurrera martxan izango da beraz, “Ontziratu zaitetz!” izena jarri dioten kanpaina.

Ontzia doan jasotzen duenak zenbait abantaila izango ditu. Tupper edo ontzia hartuta erosketak egitera doazen herritarren artean, hilero 30 euroko erosketa

balea zozketatuko da. Egitasmoarekin herritarrak soilik ez, saltokiak ere badute zer irabazia, hondakinak murriztuko baitituzte. Paper eta plastiko gutxiago erabiltzea dakarte ontziok. Herritarrekin batera, saltokietako langileek ere beraz, ingurumenaren zaintzan nabarmentzeko moduko ekarpena egingo dute, egitasmo hau martxan jartzearekin batera. Badira aipatu beharrekoak izan eta ekimen berri honek erosleei eskaintzen dizkien beste bi abantaila ere; erosotasuna eta garbitasuna.

EROSOA ETA GARBIA

“Hondakinak murrizteko oso egokiak dira. Paper eta plastiko gutxiago erabiltzea dakarte ontziok”

Aipatu moduan, bi asteburuotan mila ontzi banatu nahi dituzte kanpaina berri honetako eragileek Usurbilen. Baina beste 50.000 ontzi ere eskuragarri dituzte jada, egitasmoarekiko interesa agertzen duten udalerrietan banatzeko. Hedatzen ari den kanpaina da, “Ontziratu zaitetz!”. Egitasmoari buruzko informazio gehiago: ekogunea.net



DIARTZUNEN ETA HERNANIN ANTZEKO KANPAINAK EGIN DITUZTE.

Banaketa egunak

Urtarrilak 28, larunbata: 11:30-13:30 Dema plazan.

Urtarrilak 31, asteartea: denda ordu-regietan, Juantxo Burdindenda eta Esnaola Etxabe zein Imanol Txapartegi harategietan.

Otsailak 4, larunbata: 11:30-13:30 Dema plazan.

EkoShopper edo hondakinak murriztuz erosteko, aholkularitza zerbitzua abiatu du San Marko mankomunitateak

San Marko Mankomunitateak, Foru Aldundiko Ingurumen Sailarekin batera, herritarrei zuzenduriko zerbitzu berri bat jarri dute martxan. Doako aholkularitza eskainiko die, erosketak egiterakoan hondakinak murrizten ikasi nahi duten guztiei.

Zerbitzu berri hau jaso nahi dutenek, izena emateko otsailaren 5era arteko tartea dute: goizez, 9:00-14:00 artean, eta arratsaldez, 15:00-18:00 artean 943

670 249 telefono zenbakira deituta edota sanmarko.net web orrian sartu eta bertan dagoen formularioa beteta. Kanpainen parte hartzeagatik, aholkularitza zerbitzua doan jasotzeaz gain, erosketak egiteko orgatxo tolesgarri bat jaso ahal izango da.

Interesdunek informazio gehiago, ostiral honetan, urtarrilaren 27an, 16:00-22:00 artean Urbil merkatalgunean jarriko duten postuan jaso ahal izango dute.



OSTRAL HONETAN, URBILEN IZANGO DA INFORMAZIOA EMATEN.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Badatoz Inauteriak!



Ustekabean iristen zaizkit urtero inauteriak; konturatu gabe, bat-batean. Eta horren ezustean iristen direnez, beti izan naiz mozorroa azken orduan prestatzekoa.

Halabeharrez alde batetik bestera korrika pasatzen zait Inauterien bezpera, falta zaizkidan osagarriak ahal dudanari eskatzen. Eta urtero errepikatu arren, nire buruari “aurten ez nau zezenak harrapatuko!” esaten diot. Halere, azkenean urterokoa errepikatzen da urtero.

Behin gaia jarrita mozorroa aukeratzea kostatzen zaigu gehien. Egunak pasa ditzakegu denok ados jartzen gainerako eta ordurako otsailean ondo sartuta egoten gara normalean. Aurtengo gaiaren bueltan ordea, hasi dira jada buruak pentsatzen.

Mitologiako hainbat pertsonaia sailkatu eta aukeratu ondoren, honezkero badakigu zein izango den gure mozorroa, baina ez dizuet noski, honen inguruan ezertxo ere aurreratuko.



Hobe duzue zuek ere pentsatzen hastea zezenak harrapatzerik nahi ez baduzue behintzat, inauteriak uste baino lehenago iritsiko dira eta!!

SANTUENEA

JON ETXABE

Zertarako hainbeste presa?



Gaur amona Tererekin noa kapitale-
ra... nire eskutxo txikiak eskularru
arrosekin estali ditut eta berea
hartu dut, hezurtsua eta epela. Bffff! Zelako
hotza! Urte berriak ez du beroa ekarri behin-
tzat! Ingemar aldean garabi handi-mandi
batzuk daude eta bidean oraindik, uholdeetako lokatza-
ren arrastoa ikus daiteke. Trenaren errailak korrika pasa
ditut, ez da ba tren izugarri horietako bat azalduko tunel
ilun horretatik? Ziurtatzeko azkar pasatzea onena. Hara!
Tren geltokia desberdin dago! Txukunagoa dirudi, eta bi
aldeetako ertzetan baldosa zuriak jarri dituzte. Eta puntu-
txodun beste batzuk! Ah! Agian itsuek beraien makilekin
geltokiaren ertza non dagoen jakin ahal izateko izango da.
“Zergatik berritu dute geltokia, amona?” galdetu diot.
“Trenbidea ere berritzen ari dira, entzun dudanez, trena
aldi gehiagotan jarri eta gutxiago itzaroteko asmoarekin”
erantzun dit patxadaz irribarre gozo batekin. “Eta zertara-
ko hainbeste presa? Guri denbora soberan eman digu
hona heltzeko...” ez nuen ezer ulertzen, eta amonak beti-
koa erantzun dit “Ai, Lidetxo... handia izatean ulertuko
duzu! Kar kar kar” eta trena heldu da.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Mikel edo Iñigo?



Mikel dut izena. Perurena lehen-
bizi eta Ormaetxea gero, abize-
nak. Donostian jaioa 34 urte
badirela. Eta Aian, orain. Beste hainbeste
urte. Goizean goiz jaiki beharrik gabe ez
dira behiak, ardiak, oiloak, zakurrak,
katuak, idiak...gobernatzen. Hargatik, egusentiarri diosal
egitera ateratzen natzaio.

Jatena, azpik ateratzen, jezten, egurra mozten eta bara-
tzean zerbaitz egiterako igoa da eguzkia gora-goraino.
Neronen burua gobernatu eta eguerdi-ondokoa etzanda
eman ostean, atzera, eguzkia behera-behera sartu arte,
kasik, goizekoa errepikatu dut.

Iñigo Perez Izquierdo, 34 urte, Donostia.
Informatikaria. Irabazi handiko enpresetan informatika
sarea eta segurtasun informatikoak bermatzen buru.
Aginte gaitasun handia, proposatutakoa lortzeko pazien-
tzia infinitua. Gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemaniera
eta japoniera. Bitartekaritza-harremanetan trebea.
Eskuragarri egun osoz.

Haurra zena, bat edo beste litzateke, amaren gorputze-
tik ebatsia ez balitz!

AGINAGA

M^A ANGELES ARRUTI

Helduak eta biztanle berriak



Azaroaren 27an ospatu genuen Arrate Egoitzak antolatutako Aomenaldia, laurogei urte bete dituzten geure helduei.

Lehenbizi meza nagusia, gure aurretik joan diren guztiak gogoan izanik eta gero Aginaga sagardotegian bazkaria.

Oso egun ederra igaro genuen. Ehun eta bi lagun bildu ginen, bakoitzak bere oparia jaso zuen eta denok gustura bukatu genuen.

Hor dituzue azaroa amaieran omenduak izan zirenak, ondoan ageri den argazkian. Ezkerretik hasita, Herminia Sanchez, Agate Rekondo, Josefa Sondesa, Ramon Rezola eta Antonio Arrillaga.

Aipatu nahi ditut etortzerik izan ez zutenak ere; Joxe Mari Eskudero eta Maria Isabel Zapirain. Azkenik, adierazi nahi dizuet, Intxaurreta bailaran bi biztanle berri ditugula.

Auzoko Jesus eta haur jaio berria Joane Lizarza ongi



etorriak eta zorionak guraso berriei eta argi dagoenez, amona Rufinari lagun polita ekarri diozue denbora erraz pasatzeko.

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

2013an baietz!!!



2011ri, agur eta 2012 ongi etorria. Aurreko urteak eman diguna oraindik irentsi gabe dator hurrengoa. Begibistan urte berri honek ekarriko diguna. Ziguna?. Zer moduz dituzue urte hasieran 2012ari jarritako erronkak? Kirola egin eta

tripa inguruko "flotadorea" desagertarazi, ingelesari bul-tzada eman, aspaldi utzita zenuen musika instrumentuari hautsa kendu, kotxeko karneta atera, independizatu, ezkondu... Seguraski denok bezala, dena berriz ere bere horretan. Gimnasia apuntatu bai baina kiroldegiko txartela patrikan, berri berria eta diztirsu (bitan joan naiz), ingelesko klaseko lehen egunetako apunteak mahai gainean (hiru klase eta ez naiz bueltatu), zure betiko musikako instrumentua berriz ere bere kaxan (hautsik gabe behintzat), kotxeko gida baimena ateratzeko klaseko liburuxka apalean (teorikoa udaran seguru!), zure gela berriz margotzen (hirugarren aldiz, nire errepublika independentea, gurasoen erresuman), eta "de boda ni hablamos" (maite duzun pertsonak aguantatzen zaitu behintzat). Urteak pasa bai, baina dena bere horretan. 2013an baietz!

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Zikoina

Zubietan (oraingoz) igerilekurik ez eta hor goaz, astero legez, familia osoa kotxean sartuta Usurbilgo kiroldegirako bidaia "luzea" egitera. Erriberatik eta Santuenetik barrena, denbora nolabait bete nahian, jolasa: ea nork animala gehiago ikusi.



Eskola txikitik gertu, "ardiak!", semeak puntu bat; "nik zaldia", puntu bat; aurrerago, "antzarak!", semeak beste bi puntu; "ahuntzak", andreak puntu bat; oiloak, beste puntu bat; zakurra, nik beste bat; aurrerago semeak berriz ere "ardiak!", puntu bat gehiago... Irubietara gerturatu ahala, denok adi, denok erne: artasoroan ez, ezta ezkerreko zelaian ere... "han! zikoina!", lau puntu gehiago semeak. Semea beti garaile.

Zikoina Zubietan. Asteak joan, asteak etorri, zikoina Irubietara pareko zelaian. Ongi etorri. Interneten begiratu dut eta, ustez, "amiamoko zuria" dugu bizilagun berria. Hegazti migratzaile hauek urtero itzultzen omen dira leku (habia) berera eta badirudi honek gustuko duela Zubietako ez-negu hau... Negu gorrien akabera ote?

Bilduren gobernu taldeak 2012ko udal aurrekontuak aurkeztuko ditu herriko eragileen aurrean

2012rako udal aurrekontu proposamena osatua du Bilduk zuzentzen duen udal gobernu taldeak. Proposamen hori, herriko eragileekin partekatu nahi dute orain. Horretarako, bilera deitu dute otsailaren 1erako. Artzabalen izango da batzarra, arratsaldeko 19:00etan hasita. Garai zailak izan arren, Bilduk prentsa-ohar bidez aditzera eman duenez, "aurrekontu aurrerakoiak izango dira".

Usurbilgo Bildu udal taldeak 2012ko udal aurrekontuetarako zirriborroa herriko eragileekin konpartitu nahi du. Hala adierazi du NOAUA!ra igorri duen prentsa oharrean: "jakitun gara garai zailak direla, eta noski, krisi egoerak eragina izango du aurkeztuko ditugun aurrekontuetan. Izan ere, diru iturrien murrizketa nabaria izango da eta bestalde, azken orduko ezusteko batzuk -uholdeek sortu dituzten kalteak hainbat herri bidentan, adibidez- isla izango dute 2012ko udal aurrekontuetan".

OTSAILAREN 1EAN

"Herriaren beharrei erantzuna emateko helburuarekin diseinatutako plangintza bat proposatuko dugu"

Zailtasunak zailtasun, herriaren beharrei erantzuteko helburua du Bilduk prestatu duen udal aurrekontuak: "dena



URRATS HONEN ONDOREN, BILDUK UDAL AURREKONTU PROPOSAMENA BEHIN BEHINGOZ ONARTZEKO PROZEDURA JARRI NAHI DU MARTXAN.

dela, horren guztiaren gainera, aurrekontu aurrerakoiak eta herriaren beharrei erantzuna emateko helburuarekin diseinatutako plangintza bat proposatuko dugu".

Ekarpenak jaso dituzte

Aurrekontu proposamen hau abenduan aurkeztua izan zen herri batzarrean eta, geroztik, gainontzeko talde politikoei ere jakinarazi ei zaie. Bilduren oharrak dioenez, "abenduan herritarrei aurkeztu genizkien herri batzarrean eta ondoren talde politikoei ere helarazi genizkien. Beraien ekarpenak jasotzeko tarte ere izan dugu eta oraingo honetan herriko eragile ezberdinekin konpartitu

nahi ditugu aurrekontuak behin behingoz onartu aurretik".

Otsailaren 1ean asteazkena, Artzabalen

Herriko eragileen aurrean aurkeztu nahi dute orain 2012rako udal aurrekontu proposamena: "otsailaren 1ean arratsaldeko 19:00etan Artzabalgo aretoan izango dugu aukera. Hemendik gonbidatu nahi ditugu Usurbilgo eragileak bertan parte hartzera. Bildu udal taldearen aldetik behar diren zehaztasun, argibide eta azalpenak izango dituzte eta iritziak eta ekarpenak trukatzeko aukera ezin hobia izango da".

JE JON ELORZA
IGELTSE RITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

LATAILLADE
ITURGINTZA
 Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Santa Ageda bezpera prestatzeko azken saioak, Kaxkoan eta Zubietan

Egoki jantzita, makila eskuetan hartu eta hainbat herritar kalera irtengo dira, otsailaren 4an. Santa Ageda bezpera izango baita, eta koplak abestera irteteko hitzordu bana deitua dago Kaxkoan eta Zubietan. Iaz bezala, ospakizunak asteburuan burutuko dira aurten.

Kaxkoan, Bota Punttuba Bertso Eskola eta Euskal Kantu Taldeko kideak Santa Ageda bezperari begira dira jada. Kantu taldekoek, hilabeteko azken larunbateko hitzordua burutuko dute, urtarrilaren 28 honetan. Ohi bezala, kantu zaleak iluntzeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Astebete beranduago, kasu honetan otsaileko lehen larunbaterako egina dute bigarren hitzordua. Santa Ageda bezperako eskean irtetera deitu dituzte herritarrak, otsailaren 4rako.

ENTSEGUA NOIZ?

“Urtarrilaren 31n,
iluntzeko 18:30ean entsegua
egino da Udarregin”

“Bertsolariak eta trikitilariak lagun-duta, nahi duenak kantu eskean irtetzeko aukera izango du”, ohartarazi dute. 18:30etan jarri dute biltzeko hitzordua, Mikel Laboa plazan. Egoki



LARUNBATAREKIN EGOKITU DA AURTEN, SANTA AGEDA BEZPERA.

jantzita eta makila eskuetan izanda agertzera deitzen dute antolatzaileek.

Aurretik ordea, Santa Ageda bezperako kalejira prestatzeko ordubeteko entsegu saioa antolatu dute, datorren astearterako, urtarrilaren 31rako, Udarregi ikastolan iluntzeko 18:30etan. “Animatu zaitetz eta etorri ohiko ohitura zaharra bultzatuz elkarrekin ongi pasatzera”, berri eman dute.

Zubietarrak ere kantari; ostiral honetan entsegua

Kaxkoan bakarrik ez, Santa Ageda bezperan kantuan irtengo dira Zubietan ere. Otsailaren 4an, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Aldez aurre-

tik ordea bi entsegu saio deitu zituzten. Lehenengoa, joan den hilaren 13rako. Bigarrena berriz, ostiral honetarako, urtarrilaren 27rako. 19:00etan Kaxkapen.

Larunbat honetan, Kantu Taldekoen saioa

Kantu taldekoek, hilabeteko azken larunbateko hitzordua burutuko dute, urtarrilaren 28 honetan. Ohi bezala, kantu zaleak iluntzeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Javier Orbegozo
·ITURGINTZA
·GASA ·BEROKUNTZA
659 602 789

Erreka-txiki 13, 3.esk USURBIL 943 37 29 37

Danbor hotsak San Sebastian bezperatik

O hiturari jarraituz, bezperatik ospatu zuten San Sebastian eguna Udarregi Ikastolako ikasleek. Goibel zegoen eguraldia arratsaldean, baina eutsi egin zion eta, aurreikusi bezala, Agerialdeko frontoian eta Udarregiko kanpoko jolastokian egin ziren bi danborradak.

Haur Hezkuntzako ikasleak Agerialdeko frontoian aritu ziren San Sebastianeko doinuak jotzen eta Lehen Hezkuntzakoak, aldiz, Udarregi Ikastolako jolastokian. Ostiralean, egun seinalatuan, jai eguna izan zuten ikasleek nahiz irakasleek.



URTERO JAKINMIN HANDIA PIZTU DHI DUTE IKASTOLAKO DANBORRADEK.



HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEAK, AGERIALDEKO FRONTOIAN.



UDARREGIKO PATIDAN ARITU ZIREN LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK.

Bideoak

noaua.com orrian

Danborradak amaitu eta berehala, San Sebastian bezperako emanaldietako argazkiak eta bideoak ikusgai ipini genituen noaua.com web orrialdean.



HAUR HEZKUNTZAKOEN BIDEA.



LEHEN HEZKUNTZAKOEN BIDEA.

Inauteri festa kale giroan ospatuko da

Lehen ideiak planteatzen hasi dira koadriletan, mozorroari litxura ematen hasiko zenik ere izango da... Inauterietako makineria martxan da jada. Mozorro festarako hilabete baino gutxiago gertzen den honetan, otsailaren 18an izango diren ekitaldiak zehazten doaz. Aurtengo egitarauak aldaketak eta berrikuntzak dakartza.

Joan den asteko NOAUA!-n iragarri bezala, mitologia da, inauteri festa honetarako hautatu den gaia. Gai zabala beraz, euskal mitologiatik abiatuta, hemendik kanpo ere hainbat ideien iturri izan baitaitezke beste zenbait herrialde ere. Edota baita sarea, Internet bera ere.

OTSAILAREN 18AN

“Hainbat koadrila,
Gaztelekua, NOAUA! eta
Zumarteren ekarpenarekin
osatu da aurtengo jaiá”

Arakatze lanak, eta mozorro prestaketak martxan edo abiatzeaz dauden honetan, otsailaren 18an ospatuko den inauteri festaren inguruko zehaztasun gehiagoren berri emateko moduan gara. Oinarrizko elementuetako batek ez du huts egingo aurtengoan ere. Musika izango da bai eguerdi eta iluntze partean. Bazkal eta afa-lurretik, kalejira bana ospatuko da. Inauteri festan, kale giroan murgiltze-



IAZ “ITSASOA” GAIK JOKO ASKO EMAN ZUEN. EA AURTENGOAK...
ARGAZKIA: LURDES HUETA.

ko gonbita luzatzen arituko dira, azken urteotan aipatu egun hau alaitzen aritu diren bi talde; batetik, herriko musikari gazte talde bat, Zumartxan eguerdi partean, eta Burrenbazale txaranga arratsaldean.

NOAUA! Kultur Elkarteak, Gaztelekua, Zumarte Musika Eskola eta zenbait koadrilen laguntzarekin osatua du nagusiki, otsailaren 18ko egitaraua. Aipatu kalejiren hitzorduekin batera, aurten bada berrikuntzarik. Gaztelekukoek ere mitologiaren inguruko festa bat antolatu dute egun berean, 12-16 urte artekoentzat. Euren egoitzan burutuko da. Bazkalostean, “Ilargi-Eguzki” izenburuan.

Egunean zehar, mozorroak gainean

kalean gora eta behera ibili ostean, nahi duenak, inauteri festa borobiltzeko afaria antolatu da, oraingoan, Olarrondo jatetxean.

Afarirako txartelak salgai, otsailaren 1etik aurrera

Otordurako txartelak otsailaren 1ean jarriko dira salgai, Txiribogan, Irratin eta NOAUA!-ko egoitzan, 15 euroren truke. Antolakuntzatik gogorarazten denez, afaritara mozorrotuta agertzea ezinbestekoa izango da. Afalostean, norberak nahi edo ahal duenera arte, ziur festa giroa goizaldera arte luzatuko da.

Gonbita egin dago beraz, jantzi mozorroa eta otsailaren 18an kalera, inauteri festaz gozatzeraz.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Kultur eraikin berriaren itxuraren inguruan...

Arillagaenea edo Potxoenea. Zalantza horren bueltan interesgarri izango zelakoan, Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek igorri ziguten balorazioaren berri eman genuen aurreko astean. Bide batez, eraikinaren eraberritzeari buruzko iritzia ere helarazi zuten. Hortik dator honoko artikuluaeren nondik norakoa. Tellabide eta Agirresaroberi erantzunez, eraikinaren eraberritze-lanean aritu den arkitekto taldeak bere iritziaren berri emateko eskaera egin digu.

“Usurbilgo ondarea ezagutzen” liburua osatu zuten 2009an Asier Agirresarobek eta Josu Tellabidek. Aurretik, “Usurbilgo baserriak eta baserritarrak” (2005) liburuan ere zeresan handia izan zuten. Herriko kultur eraikin berriari jarri behar zaion izenaren harira, hainbat azalpen eman zizkiguten aurreko astean, orriotan. Eztabaidaren muina hori ez bazen ere, eraikinaren eraberritzeari buruzko iritzia ere eman zuten. Kritiko azaldu ziren eraberritze moduarekin. Gogora ekarriko dugu euren hitzetan: “Interes gehien zuen aurrealdeko fatxada mantendu da bakarrik, plazari begira dagoena, ez erabat gainera, eta beste paretak estalki beltzez estali dira, eraikinak ‘zerraldo beltz’ baten itxura hartuz. Beste behin ere, eta denbora tarte laburrean bada bigarrena, Usurbilen geratzen den gunerik balioetsuena ez da behar bezala baloratua eta eraberritua izan. Ez da gustu kontua, herriko arkitektura tradizionalari zor zaion errespetua baizik”.

Arkitektura tradizionala behar bezala babestearen alde

Ainara Sagarna, Maialen Sagarna eta Juan Pedro Otaduy izan dira Dema plazara ematen duen eraikin berriaren proiektua landu duten arkitektoak. Aurreko asteko NOAUA!n argitara eman zen artikuluaeren aurrean, honela mintzo dira: “Ez da gure asmoa eztabaida hutsaletan sartzea, baina NOAUA!ko 475. alean Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek azaldutako iritziaren aurrean, azalpen batzuk eman nahi ditugu. Ez dugu zalantzan jartzen, inolaz ere ez, Josu Tellabidek eta Asier Agirresarobek euskal etnologiaren inguruan duten jakinduria zabala. Guk haien

ekarpenak askotan kontsultatu behar izan ditugu eta oso baliagarriak gertatu zaizkigu, gure lanerako irizpideak ezar- tzerakoan”.

Izan ere, arkitekto talde honek dioen bezala, “herriko arkitektura tradizionala behar bezala baloratu eta babestu behar dela defendatzen dugu. Eta, hain zuzen ere, gure lana gidatu duen premisa izan da eta izango da. Potxoenea eraberritze-ko proiektua eta obraren jarraipena egin dutenek ongi dakite ahalegin berezia egin dela (bai teknikoa, bai ekonomiko-koa) jatorrizko eraikuntzaren baliozko elementuak bere hartan mantentzeko.

ARKITEKTO TALDEA

“Eraikin berrerailean eta zabalpenetan ondarearen babesa beste interes batzuekin uztartu beharra dago”

Neurri berekoa izan da ezinbesteko zabalpena bere inguruko kontestuan ahalik eta egokien integratzeko eginko ahalegina ere”.

Interes guztiei erantzutea

Interes guztiei modu orekatuan erantzuten saiatu direla diote arkitektoek NOAUA!ra igorri duten iritzian: “Eraikin berrerailean (oso praktika jasangarria, bestalde) eta zabalpenetan (kasu honetan bezala) ondarearen babesa beste interes batzuekin uztartu beharra dago: erabilera berrientzako espazioak egokitzea, irisgarritasun unibertsala bermatzea, instalazio berriak egokitzea, eskaera energetikoak murriztea, argi naturalaren aprobetxamendua areagotzea, etab. Eta hori da arkitektoon



POTXOENEA BEZALA EZAGUNA DEN ERAIKINA, BERRITZE-LANEN AURRETIK.



EKIPAMENDU BERRIA, BARRUTIK, OBRA AMAITU ONDOREN.

lana, interes guztiei erantzutea modu orekatuan. Zabala da ondarearen berreskaintza eta eraberritzearen praktikan urteetan zehar metatu den jakintza. Horixe da praktikan ipini duguna Potxoenean”.

Gainera, “arkitektura tradizionalak garaian garaikoa delako du balorea: XVII. mendean ez zen eraikitzen XIV. mendean bezala eta oker egingo genuke XXI. mendean XVII.ean bezala eraikitzen jarraituko bagenu”, diote .

Erabilera berrietara egokitu

“Potxoenearen eraberritzea gure ondarearekiko errespetu osoz egin dugu. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoari ere honela iruditu zitzaion eta jendarearen azaltzeko eskatu ziguten *Gertuko Arkitekturen Topaketa* jardunaldietan eta horrelaxe egin genuen. Gure asmoa eraikuntzak zituen balore etnografikoak errespetatuz, baldintza ekonomikoetara mugatuz, ezinbestean egin beharreko zabalpena ahalik eta hobekien integratuz, Potxoenea erabilera berrietara egokitzea izan da, nahiz eta jakin emaitza denen gustukoa ezin dela izan”, esanez amaitzen dute euren balorazioa Ainara Sagarna, Maialen Sagarna eta Juan Pedro Otaduyk, Potxoenea eraberritzeko proiektua egin duen arkitekto taldeko kideek.



OBRA AMAITU BERRITAN, ITXURA HAU HARTU DU POTXOENEA.

“Ez dakit zer gertatuko den, itxaron egin behar”

Epaileak zer esango, horren zain dago Patxi Segurola. Duela egun batzuk Parisen izan zen deklaratzeko, Espainiako fiskaltzak egin duen estradizio eskaeren inguruko afe-
ran. Egun hauetan Autunen da berriz ere, konfinaturik, epaileak otsailaren 15ean zer esango duen zain. NOAUA!ri eskaini dion elkarrizketan, urduri agertu da, epaiarekin kezkatuta: “hori buruan dut egunero”.

NOAUA! Lehenik eta behin zer moduz zaude? Urtarrilaren 11ko epaiketaren gertaturikoa nola hartu duzu?

Patxi Segurola. Nahiko ondo nago, urduri. Nire egoeran normala iruditzen zait, zeren, gero eta gertuago daukat epai eguna, beraz, hori buruan dut uneoro.

Ondo hartu nuen epaiketaren gertaturikoa: beste hilabete bat badut inposaturiko egoera honetan eta mugaren gainetik askatasun mugatu honetaz disfrutatzen.

N. Otsailaren 15ari begira zaude jada, epaileak egun horretan jakinaraziko dizu estradizio eskaeren inguruko erabakia. Esan dizutenagatik, zer da gerta daitekeena? Eta zer uste duzu gertatuko dela?

P. S. Posible da otsailaren 15ean ez bukatzea eta epairik ez izatea egun horretan. Aurreko bi epaiketetan, epaileek informazio gehiago eskatu zioten Estatu Espainolari eta baliteke oraingo honetan ere gauza bera egitea. Hala bada, beste data bat finkatuko didate epaiketarekin segitzeko.

PATXI SEGUOLA

“Ezin dut gerturatu Euskal Herrira familia eta lagunekin egoteko”

Litekeena da ere 15ean estradizio eskaera bat onartzea eta bertan atxilotzea. Nahiz eta helegitea jarri, helegitea aztertu artean espetxean mantenduko ninduten. Gerta daiteke ere orain artean egin duten bezala estradizio eskaerei ezetz esatea, hala bada ez dakit ze kondizioetan utziko nauten, jakinik, Estatu frantsesean bizitzea debekatua dudala.

Beraz ez dakit zer gertatuko den, itxaron egin behar eta, bitartean, guzti horrekin ahal dudana disfrutatuko dut.

N. Epaiketaren egunean elkarretaraztea deitu zen Usurbilen. Halako elkartasun ekimenek zer suposatzen dute zuretzat?

P. S. Askok suposatzen du, bakarrik ez nagoen seinalea da. Sostengu horrek indarra eta animoak ematen ditu, eta momentu zailtan laguntza handia da.

N. Eguna iritsi bitartean, Autunen jarraitu beharko duzu. 2010eko azaroan espetxe zigorra bete arren, bertan darmazu urtebete inguru. Nolako da zure egunerokoa Autunen?

P. S. Iritsi nintzenez, herritik bueltara ibili nintzen herria ezagutzeko eta norbaitekin harremanak egiteko asmoz. Eta pixkanaka jendea ezagutu dut eta lagun onak egin ere bai.

Basoetan ere buelta ederrak eman



AUTUNEN KONFINATURIK DUTE. PATXIK EZIN DU HANDIK MUGITU.

nituen, hainbeste denbora espetxean pasa ondoren gogoan nuen benetan. Buelta horietan basoak ezagutu nituen, horrek udazkenean ondo pila biltzeko aukera eman dit, ederki disfrutatuz.

Udaberri eta udan lana egiteko aukera ere izan dut, beltzean noski. Eta orain lanik ez eta lasai, nire lagunekin batera eta bestera beraien etxetan bazkalduz eta abar....

Bisitak ditudanean, berriz, bisitariekin ahal dudana guztia gozaten saiatzen naiz.

“Internet eta teknologia berri hauek asko laguntzen didate harremanak mantentzen”

NOAUA! Autunetik ezin duzu irten. Zer nolako muga suposatzen du horrek zuretzat?

Patxi Segurola. Lehenik, ezin dut gerturatu Euskal Herrira familia eta lagunekin egoteko. Bestetik, herria ez da handia eta gainetik ez dago aktibitate askorik. Inguruko herri eta tokietara joatea debekatua dut; beraz, ezin dut auzoetako inguruneaz lasai disfrutatuko.

N. Urruti egon arren, Usurbilekin eta herritarrekin baduzu harremanik, sare sozialen bidez. Ez zaizu beraz Usurbilgo berri falta, ezta?

P. S. Beti eduki ditut harremanak herriko eta inguruko jendearekin, orain internet eta teknologia berri hauek asko laguntzen didate harremanak mantentzen. Jende berria ezagutzeko ere balio dit.

Beraz, Usurbilgo eta Euskal Herriko berriak badituz, egunkariak eta herriko NOAUA ere interneten irakurtzen ditut.

N. Besterik aipatu nahi zenuke?

P. S. Eskerrak eman herrian mugitzen zareten guztiei, tamalez oraindik mobilizazio asko egin beharko ditugu eta parte hartzea eskatzen dizuet, denon artean lortuko baitugu preso eta iheslariak etxeratzea! Besarkada estu bat guztioi!

Pariserako joateko deialdia egin du Ezker Abertzaleak

Ursurbilgo Ezker Abertzaleak otsailaren 15ean Pariserako autobusa antolatu du Patxi Segurolari elkartasuna eta babes emateko. Estatu espainiarrak estraditatzeko eginiko eskaerarekin zer egingo duen jakinaraziko dio Pariseko epaileak egun horretan. Autobusa osatu nahian, zerrendak jarri dituzte: Txiribogan, Bordatxon eta Aginagako Arrate zahar goitizan.

“Sena zendu gabe”, Iñaki Agirresaroberen eskutik

Argazkiak egiten trebea da Iñaki Agirresarobe. Irudiak baliatuz, 30 minutuko emanaldia prestatu du eta datorren astean eskainiko du Sutegin.

“Sena zendu gabe”, izeneko emanaldiarekin, “euskaltasuna eta herri baten izaera nabarmentzeko ditugun ezaugarri batzuen bilduma egin dut argazki

sorta baten bidez”. Otsailaren 3ko emanaldian, beraz, gure inguruko etxeak, ohiturak, janzkerak, jaiak... irudikaturik ikus ahal izango ditugu.

Otsailak 3, ostirala

Ordua: 19:00etan.

Non: Sutegi kultur etxean.

Iraupena: 30 minutuko emanaldia izango da.



ARGAZKI HAU JASO DU OTSAILAREN 3AN ESKAINIKO DUEN EMANALDIRAKO.

Bihurri ludotekan izen emateko aukera zabalik

Martxoaren 31 arte irekia dago Bihurri haur ludotekan izen emateko epea. Bazkide berriek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide izaten jarraitu nahi dutenek 10 euro. Ordainketak ludotekak

Kutxan duen kontu korrante zenbakian egin behar dira, norbere izen abizenak jarrita. Eta ondoren eman behar da izena, Gaztelekuko egoitza ondora gerturatuta. Asteazkenetan, 18:00-19:00 artean.

Sendabelar ikastaroa, larunbatetik aurrera

Usurbiltzen Elkarteak antolatutako duen sendabelarren inguruko ikastaroa, larunbat honetan, urtarrilaren 28an abiatuko da. Saioak, Laura Gurbindok zuzenduko ditu, larunbatero eta lau orduz, 9:30-13:30 artean, Santueneako frontoi berriko lokalean. Teoria eta praktika uztartuko ditu ikastaro honek.

Sendabelar motak, euren propietate eta atal erabilgarriak zeintzuk diren jakitearekin batera, irteerak ere egingo dituzte, eta klase barruan baita preparatu desberdinak ere.

Ikastarorako izena, aldezturik eman behar da 661 972 670 telefono zenbakian edo usurbiltzen@gmail.com helbidean.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Urtarrileko azken ostirala heldu da jada, eta hilero moduan, euskal preso politikoen eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Egin Dezagun Bidea ekimenak, herriko taldeen parte hartzea bultzatu nahi du mobilizazio honetan. Hartara, ITAYA Gazte Asanbladak deituzuen elkarretaratzea joan den azaroan. Oraingoan, Usurbilen Nahi Ditugu taldekoak izango dira, ostiraleko deialdia antolatuko dutenak.

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
kale nagusia 47, behea A

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Igandean, mendi bizikletan

Irisasi inguru zeharkatzeko mendi bizikleta irteera antolatu du Andatza Mendizale Elkarteko BTT Taldeak. Hitzordua igande goiz honetarako finkatu dute. Bizikleta gainean osteratxo egin nahi duen 16 urtetik gorako herritar orori zuzenduriko kirol ekimen berria du gutxi gero 29koa.

Duela hilabete batzuk Andatza Mendizale Elkartean baitan sortu zen BTT Taldeak eta Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak igande honetarako, Irisasi BTT 2012 Hotzak Akabatzen izeneko mendi bizikletako zeharkaldia antolatu dute. Kaxkotik abiatu, eta erriberratik barrena, Txokoaldetik Andatza aldeira igo eta mendi inguruak zeharkatuko dituen ibilbidea osatzea proposatzen dute. Ez da lehiarik izango, ez baita txapelketa. Trabesia bat baizik, antolatzaileek kalkulatu dutenaren arabera, 29,1 kilometrotakoa. Goizeko 9:00etan jarri dute irteera hitzordua, frontoian. Itzulera ere leku berean izango da.

Zozketak, proba amaieran

Antolakuntzatik herritarrei parte hartzea deitzen diete. Izen ematea igande

goizean bertan burutuko da, 8:00-8:30 artean frontoian. Apuntatzeko orria lehenago bete nahi duenak, inprimakia Andatzako web orrialdetik jaitsi dezake. Ordaindu beharreko prezioak honako hauek dira; federatuta daudenek 10 euro, federatuta ez daudenek 15 euro. Parte hartzeko 16 urte beteta izatea derrigorrezkoa da, eta nahitaezkoa da baita, bizikletarekin batera, norberak bere kaskoa eramatea ere. Proba amaieran, Oiaro Kiroldegian dutxatu ahal izango da, eta antolakuntzak bizikletak garbitzeko ere mangerak jarriko ditu. Jarraian, partaideek hamaiketako bikaina dastatu ahal izango dute, "barrikote eta guzti", BTT Taldeak adierazi dutenez. Zeharkaldian irteeraren artean hainbat opari ere zozketatuko dira.

Andatzaren helbide berria:

www.andatzamendizale.info

"Webgunearen hosting zerbitzua eskaintzen digun enpresarekin aldaketak izan ditugunez, aurretik zuen nabigatzaileetan izan ditzakezuen loturak funtzionatzeari utzi diezaiokete", adierazi digute. Apuntatu beraz, helbide berria, honakoa da eta: andatzamendizale.info.

Herriko hiru txirrindulari, Espainiako Pista Txapelketan

Asteburu honetan jokatu da Espainiako Pista Txapelketa, txirrindularitza egokituari dagokion mailan. Mallorca uharterako Palma Arenan arituko dira lehian Jon Sarasua, Amador Granados eta Beñat Lizaso. Raquel Mateo eta Guillermo Priorekin batera osatu dute Euskadiko selekzioa. Ostiralean, erlojuaren aurkako txapelketa jokatu da. Jazarpen lasterketak, aldiz, larunbatean izango dira (baita taldekako lasterketak ere).

Amador Granados, Munduko Txapelketan

Asteburu honetan Mallorcan izango da Amador Granados eta dominaren bat eskuratzeko aukera asko ditu. Otsailean, ordea, Amerikako Estatu Batuetako Los Angeles hirian izango da Granados. Munduko Txapelketa bertan jokatu da, otsailaren 10etik 13ra, eta Amador Granadosek kilometroko erlojupekoan zein jazarpen proban hartuko du parte.



Urtarrilak 28 larunbata

Eskubalo partidak Oiaro kiroldegian Kadete neskek, Euskal Liga. 16.00h
Usurbil K.E. - IMH Elgoibar.

Jubenil neskek, Euskal Liga. 17.30h
Usurbil K.E. - Lauko Elgoibar.

Olatz Arregi izan da eskubalo erri-fako zozketan saritua. Patrin egokitu zaio otordua bi lagunentzat. On egin!



ARGAZKIAN, ANTOLAKETAN ARITU DIREN KIDEAK.



Aliprox
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



ARRANDEGIA
PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL
677 37 34 66
943 36 21 78



Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Autobus Orduategia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. It lists bus departure and arrival times for the LANEGUNETAN route.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. It lists bus departure and arrival times for the JAIEGUNETAN route.

LARUNBAT GAUETAN

Table with columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz. It lists bus departure and arrival times for the LARUNBAT GAUETAN route.

LARUNBAT GAUETAN

Table with columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. It lists bus departure and arrival times for the LARUNBAT GAUETAN route.

Urbil (Donostia) / Orio (Zarautz) / Usurbil (Ospitaleak) / Zarautz (Donostia) / Urbil (Donostia) / Orio (Zarautz) / Usurbil (Ospitaleak) / Zarautz (Donostia)

Tren Orduategia

Table with columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Donostia, Donostia, Usurbil, Orio, Zarautz. It lists train departure and arrival times between Zarautz, Orio, Usurbil, and Donostia.

Donostia: Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN, Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN. Zarautz: Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN, Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN.

Ospitalera autobusak astelehenerik ostiralera (lanegunak)

Table showing bus routes from Ospitaleak to Usurbil and vice versa. Columns include USURBIL, ZUBIETA, LASARTE, OSPITALEAK and OSPITALEAK, LASARTE, ZUBIETA, USURBIL.

LURRALDE BUS ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL. Itteera Usurbil, ASTELEHEN-LARUNBATERA, and Itteera Astigarraga, ASTELEHEN-LARUNBATERA. It lists bus departure and arrival times for these routes.

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE. LANEGUNETAN, LARUNBATGAUETAN, and JAIEGUNETAN. It lists bus departure and arrival times for routes between Zubieta and Lasarte.

BUS-TAXI Astelehenerik Ostiralera 630 64 35 96*. It lists bus departure and arrival times for routes between various locations.

Agenda!

Urtarrilak 27 ostirala

- Gure Pakearen bilera, Artzabalen 16:30ean.

Urtarrilak 28 larunbata

- Sendabelar ikastaroaren hasiera Santueneko frontoi berriko lokalean. 661 972 670 / usurbiltzen@gmail.com
- Usurbilgo Kantu Taldea 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Urtarrilak 29 igandea

- Mendi bizikleta irteera 9:00etan frontoitik.

Goardiako farmaziak

Urtarrilak 26, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urtarrilak 27, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urtarrilak 28, larunbata
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urtarrilak 29, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urtarrilak 30, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Urtarrilak 31, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 1, asteazkena
De Miguel, Kale Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 2, osteguna
Rodriguez, K. Nagusia 42 Lasarte

Otsailak 3, ostirala
Gil, Kale Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 4, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 5, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

* Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Echeveste, Elkano kalea 9, behea Hernani
Telefono zenbakia: 943 552 087.
Urte osoko egutegia jasotzeko bidali FARMA
25600 zenbakira (1,39 BEZ barne)

Gure Pakearen biltzarra, ostiralean

2012an sartzearekin batera, urteroko batzarra deitu du Gure Pakea elkarteak. Hitzordua finkatua dute jada, urtarrilaren 27rako. Deialdi bakarra burutu dute, arratsaldeko 16:30erako Artzabalen duten egoitzan.

Bazkideen arteko txapelketak Otsailerako berriz, Bazkideen Arteko Txapelketak ospatuko direla iragarri dute. Ekimen hauetan parte hartzeko otsailaren 6ra arte izena eman ahal izango dute. Joko guztiak jarraian zehazten diren egunetan burutuko dira, arratsaldeko 16:00etan hasita Artzabalen:

Otsailak 7, asteartea: punttua.

Otsailak 8, asteazkena: tutea.

Otsailak 14, asteartea: mus.

Otsailak 15, asteazkena: igel joko eta toka.

Otsailak 22, asteazkena: sari bana-



ARRATSALDEKO 16:30EAN
HASIKO DA BATZARRA ARTZABALEN.

keta, 17:00etatik aurrera. Ondoren, luntxa.

Kuota kobratzea

Bada Gure Pakea Elkartatik bazkideei zuzenduta helarazi duten beste ohar bat ere. Kuotak otsailaren 13tik aurrera hasiko dira kobratzen. Berri eman dutenez, "zerbait gehiago jakin nahi duenak elkarteko bulegora hurbildu dadila".

Busa, Bilbon egingo den manifestaziora

Larunbat honetan, gaztetxean Lalde Bilbon deitua dagoen manifestaziora joateko autobusa antolatu du ITAYAK. Mobilizazioa 17:30ean abiatuko da Arriagatik, Bilboko Okupazio Mugimenduak deituta. Ekitaldiak, ordea, goizetik izango dira. Usurbildik goizez irtengo da autobusa Bizkaiko hiriburura.

Autobuserako izena, Karobin edo Irratin eman daiteke, baita e-posta bidez ere, honako helbidean: itaya@euskalerrria.org

Mendeku Itxua, ostiral honetan Lasarte-Orian

Ostiral honetan, Lasarte-Orian joko du Mendeku Itxua taldeak. Abend kafe antzokiko Metal Gauaren baitan eskainiko dute emanaldia, Hira taldekoekin batera. Gauerdian hasiko da, sarrera 5 euro.



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

Izena emateko epea:

**urtarrilaren 30etik
otsailaren 10arte.**

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

UDARREGI IKASTOLA



Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.

44 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com